

## Hemen da IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU, irakurzaletasuna bultzatzeko egitasmoa

- Liburuaren Nazioarteko Egunean, apirilak 23, abiatuko da “Irakurri, gozatu eta oparitu” kanpainaren zortzigarren edizioa.
- Euskal Herri osoko 42 herritan gauzatuko da, iaz baino 18 gehiagotan, eta ekainaren 30era arte luzatuko da.
- Irakurzaletasuna sustatzeko asmoz, herrietako Euskaltzale Elkartek, Euskara zerbitzuak, liburutegiak eta liburu dendak elkarlanean jarri dira.
- **Ondarroan Udal liburutegia, Idiakez eta Xurumurru liburudendak**

Euskaltzaleen Topaguneak IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU egitasmoaren zortzigarren edizioa jarri du martxan, zenbait euskara elkarte, Udal , liburutegi eta liburu dendarekin batera, eta hainbat Udal, Eusko Jaurlaritzaren kultura saileko zein Araba eta Bizkaiko Foru Aldundien babesarekin.

*Irakurri, Gozatu eta Oparitu* ekimena **apirilaren 23an abiatuko da**, Liburuaren Nazioarteko Egunean, eta Euskal Herri osoko 42 herritan egongo da martxan ekainaren 30era arte. **Irakurzaletasuna bultzatzea xede** duen egitasmo honek herritarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatu nahi ditu, irakurtzearen alde atsegin eta gozagarria azpimarratuz. Aurten hedapen nabarmena izan du egitasmoak, **iaz baino herri dezente gehiagotan** jarriko baita martxan.

Egitasmoa tokian tokiko euskaltzaleen elkarten, Udalen, liburutegien eta liburu dendan elkarlanari esker abiatuko da, eta herrietako eragileen arteko harremanerako tresna izan nahi du. Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pausu eman behar dira bertan parte hartzeko:

**Irakurri.** Lehenengo pausoa irakurtzea da, euskaraz irakurtzea, alegia. Horretarako, herriko liburutegi publikora joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izango dugu.

**Gozatu.** Liburua irakurri, liburutegira itzuli, eta fitxa simple bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburua eta zer iritzi dugun. Fitxa hori beteta, liburuzainak erosketa-txekea emango digu, hitzartutako liburu dendan erabiltzeko.

**Oparitu.** Azken pausua, liburua oparitzea da: lagun bati, senide bati, edo norbere buruari.

Liburutegian jasotako txartelarekin, euskarazko beste edozein libururen prezioaren %25 ordaintzeko aukera izango dugu. (*%50 euskaltzaleen elkarte antolatzailearen edo adostutako beste talderen bat kide izanez gero*)

### **Liburuaren Nazioarteko Egunean hasita, bi hilabetez**

Aurreko edizioetan bezala, apirilaren 23an abiatuko da aurten ere “*Irakurri, Gozatu eta Oparitu*” egitasmoa, Liburuaren Nazioarteko Egunean. Uda aurreko hilabeteak baliatzen dira egitasmoa sustatzeko, liburuaren irakurketarako garai egokia baita. Bi hilabeteko iraupena izango du kanpainak, **ekainaren 30era arte** egongo da liburutegietan erosketa-txekeak lortzeko aukera eta **uztailaren 5era artekoa** horiek liburu dendan erabiltzeko.

Esan bezala, aurten 42 herritan izango da martxan ekimena. **Eskualdekako hedapenean** zentratu dira antolatzaileak egitasmoa herrietan indartzeko helburuarekin:

**Araba:** Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Maeztu, Urkabustaitz, Zigoitia, Zuia.

**Bizkaia:** Atxondo, Bilbo, Derio, Ermua, Larrabetzu, Mallabia, Mañaria, Ondarroa, Otxandio, Portugalete, Zamudio.

**Gipuzkoa:** Ataun, Beasain, Idiazabal, Lazkao, Mutriku, Segura, Soraluze, Olaberria, Ordizia, Orio, Zaldibia.

**Nafarroa:** Altsasu, Araitz, Arbizu, Irurtzun, Gares, Basaburua, Lakuntza, Larraun, Lizarra, Olazti, Tafalla, Urdiain, Ziordia .

Aurreko urteetan ikusi denez, kanpainak eragin positiboa du herritarrek herriko liburutegian egiten duten euskarazko liburu mailegu erabileran. Izan ere, egitasmoaren helburuetariko bat da euskaldunak liburutegi publikoen erabiltzaile bihurtzea. Era berean, ekimenak **liburu salmentan izaten duen eragina** ere kontuan hartzekoa da.

Euskaltzaleen Topagunea 1997an sortu zen, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 95 Euskara Elkartek osatzen dute. Elkarteon zein mugimenduaren beraren helburua euskararen erabilera sustatzea da. Horretarako, hainbat esparru lantzen dituzte, hala nola haur eta gazteen aisialdia, kulturgintza, tokiko hedabideak, mintzapraktika, entitateak euskalduntzea eta sentiberatzea.

-Liburu denda laguntzaileak: **Idiakez eta Zurrumurru**

-Antolatzailea(k): Ondarroako Udala. Udal liburutegia